

## Funtsezko Elkarteak

Taldeko kideak Iker Gomez, Olaia Ciruelo, Iria Tabares eta Alvaro Giraldez gara. Iker Gomez-ek programatzeko jakituria du, eta ondorioz berak idatziko du aplikazioaren kodea, erabiltzaileak konektatzeko algoritmoa barne. Iria sare sozialak kudeatuko ditu; bere esku egongo da erabiltzaileak aurkitzea marketing-aren bidez, eta horretaz aparte GKEarekiko harremanak kudeatuko ditu. Olaia aplikazioaren diseinu grafikoaz arduratuko da, marrazketan trebea baita. Bukatzeko, Alvarok jasotako kexak aztertuko ditu eta horien bitartez aplikazioari egin beharreko aldaketak proposatuko ditu.

Aplikazioa bera aurrera eramateko printzipioz ez dugu elkarterik behar kanpoko erakundeekin, erabiliko ditugun plataforma guztiak eskuragarri ditugulako. Gure ideia, ordea, GKE bati soilik dirua eman beharrean, harekin elkarte bat egitea da, adibidez, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak irakasteko plataforma emateko, edo gure merkatu segmentuari orokorrean interesatuko ez litzaizkieken hizkuntzak ikastera bultzatzeko.

Espainian bai errefuxiatuei eta bai internazionalki egoera larrian bizi diren taldeei laguntza eskaintzen dien GKE handi bat Gurutze Gorria da; harekin elkarte sortzea egokia izango litzateke hizkuntza mota hauek (arriskuan daudenak eta orokorrean ikasten ez direnak) giza-talde hauetan ematen direlako, eta gainera erreza izango litzatekeelako erakunde honekin kontaktuan jartzea Gurutze Gorria Gazteria taldearen bitartez.



Diseinua (irudi guztiak CC lizentzia dute):  
Lur planetaren irudia: Linuxerist  
Bunbuiloa: Ilya, Simpleshow Foundation-en